

HAPO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA



HAPO
PGOU
GETXO

Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO)

behin-behineko onarpena

Getxoko HAPO uztailaren 26ko ezohiko osoko
bilkuran behin-behinean onartu zuten.



Udal Gobernuak uztailaren 1ean eman zien oposizioko taldeei Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren dokumentua, herritarren eta talde politikoen ekarpenak biltzen dituen.

Aste batzuk geroago, uztailaren 19an, Lurralde Informazio Batzordeak dokumentua onartu zuen. Ondoren, dokumentua behin-behinean onartu zen joan den ostiralean, uztailaren 26ko ezohiko osoko bilkuran.

Aipagarria da hasierako onespena 2022ko irailean izan zela. Aipatutako uztailako osoko bilkuran dokumentu berria onartu ostean, eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko Batzordeak aldeko txostena idatzi ondoren, behin-betiko onartuko da.

Getxoren etorkizuna zehaztuko duen HAPO berriaren tramitazioan beste urrats bat da.

HAPO berriaren helburua

Plan berri honen helburua Getxo hiri kohesionatua izatea da, hiriaren eta gizartearen ikuspegitik. Hiri erakargarri baten protagonista direla sentiarazi nahi zaie auzo guztiei, aurrera egiten duen hiria eta etorkizuneko proiektuak dituen.

Getxo jasangarria, segurua, erresilientea, trinkoa eta inklusiboa, guztiontzako hiria, giza eskala galduko ez duena eta genero ikuspegia barneratuko duena.

Jasangarritasun integratuan oinarritutako hiri-eredu berri bat definitzen du Planak, Getxok orain eta etorkizuneko belaunaldientzat dituen beharrak asetzeko.

HAPOren faseak



2022ko hasierako onespenaren dokumentuarekin alderatuta, alde gutxi

Behin-behineko onespeneko dokumentuak ez du aldaketa garrantzitsurik, hasierako onespeneko dokumentuarekiko, bere lurralde-egitura eta funtsezko zehaztapenak aldatuko lituzkeenik, eta bere lau ideia nagusiak mantentzen ditu.

Aldaketak herritarrek egindako ekarpenei zein HAPOaren definizioan esku hartu behar duten beste administrazio batzuen txosten sektorial ugarien eraginari erantzuten diete.

www.hapo-getxo.eus

Hemen aurkituko duzu HAPO berriari
buruzko informazio guztia.

HAPO berriaren balore nagusiak



Azpimarratzekoa da HAPO berriak Andra Mari auzoan izango duen eragin positiboa; izan ere, babestu egingo da, eta dauden etxebizitzak eta baserriak erregulatuko dira, eraikinak eta ingurune naturala zaintzen eta birgaitzen laguntzeko.

HAPO berri honen funtsezko alderdiei dagokienez, lau ideia nabarmentzen dira:

1) Azkorri Getxoko aktibo natural gisa babesteko apustua: egungo planak (2001ekoa) dentsitate txikiko etxebizitzak aurreikusten ditu, Sopela eta Berangoraino. HAPO berriak lurzoru honen %70-80 artean gordetzea aurreikusten du,

parke, ekipamendu eta gertuko zerbitzu berriak sortuz, Juan Cuadrado kaletik haziz.

2) Etxebizitza berriak eraikitzea (4.471) biztanle gazteenen beharrei aurre egiteko, biztanleria mantendu eta berreskuratzeko helburuarekin, eta Euskal Autonomia Erkidegoko LAGek (Lurralde Antolamendurako Gidalerroek) adierazitako 4.790 etxebizitzetara iritsi arte kudeaketarako aukera utziz.

3) Parke, ekipamendu eta gertuko zerbitzu berriak sortzea. Espazio libreetarako 191.600m² aurreikusi dira. Aipatzekoa da Murun, 35.208m²-ko parke handi bat proposatzen dela.

Eta zuzkidura-bizitokietarako, lursailak erreserbatu dira, Zubilletan, Peña Santa Marinaran eta Dilizgoikoan.

4) Jarduera ekonomikoa bultzatzea, lo-hiri eredua saihestuz; Getxon lan egiteko aukera emanez, bizi eta gozatzeaz gain. Lurzoru urbanizagarriko 12 hektareako sektore bat jarriko da martxan Martiturrin, jarduera ekonomiko estrategikoetarako; hurbileko ehun ekonomikoa bultzatuko da, hiria biziberritzeko erabileren nahasketa erraztuz.

HAPO berriaren ardatzak

HAPO berriak **jasangarritasun integratu**ko eredu bat lortu nahi du, lehentasunezko lau ardatz uztartuz: **soziala**, **ingurumenekoa**, **ekonomikoa** eta **fisikoa**.

GIZARTEA

INGURUMENA

EKONOMIA

FISIKOA

GIZARTEA

- Biztanleria mantentzea.
- Auzoak modu orekatuan garatzea, gizartearen, belaunaldien, familia berrien eta generoaren ikuspegitik.
- Bizitegi-eredu berriak ahalbidetzea, bizitzako etapa guztietako beharrak asetzeko.

Zuzkiduren eta ekipamenduen arteko oreka auzoen artean.

HAPO berriak honako hauek aurreikusten ditu, besteak beste:

- 191.600 m²-ko espazio libre. Horien artean, 35.208 m²-ko parke handi bat Murun.
- Zuzkidura-bizitokietarako, Zubilletan, Peña Santa Marinan eta Dilizgoikoan lursailak erreserbatu dira.
- 4.471 etxebizitza planifikatzea, hirutik bi babestuak (3.044), hurbileko parke, ekipamendu eta zerbitzu berriak sortuz, Juan Cuadrado kaletik haziz.

INGURUMENA

- Lurzoruaren okupazioa murriztea.
- Ingurumen-balio handiko eremuak eta korridore berdeak babestea.
- Klima-aldaketara egokitzea eta uholde-arriskuak murriztea.
- Hiriko irisgarritasuna eta mugikortasun jasangarritasun ezartzea.

Klima-aldaketara egokitzea eta uholde-arriskuak murriztea.

EKONOMIA

- Produkzio-sare estrategikoa sustatzea.
- Ehun ekonomikoa bultzatzea.
- Erabileren nahasketa erraztea.
- Bizitegi- eta ekoizpen-garapenak orekatzea.

Produkzio-sare estrategikoa sustatzea.

Horretarako, HAPOk hainbat proposamen ditu, garrantzitsuenak:

- Jarduera ekonomiko estrategikoetarako lurzoru urbanizagarriko 12 ha-ko sektore bat abian jartzea Martiturrin.
- Hurbileko ehun ekonomikoa bultzatzea, hiria biziberritzeko erabileren nahasketa erraztuz.

Erabileren nahasketa erraztea eta hurbileko merkataritza eta zerbitzuak bultzatzea.

FISIKOA

- Hiri trinkoaren eredua, sozialki kohesionatua.
- Gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-sinergien zirkulu bat sortzea, eraikinen eta hiri-espazioen birgaitzea erraztuz.
- Hazkunde iraunkorra eta auzoen integrazioari baldintzatua bermatzea; hiri BATUA eta ATSEGINA.

Hiri trinko bat garatzea planteatzen da, etxebizitza berriak planifikatuz egungo hiriaren hedapen gisa, modu kolektiboan, erabileren nahasketarekin eta hurbiltasun-distantziekin.

Gaur egun eraikita dagoen Getxo bete egiten da, eraberritzeko edo berritzeko jarduketa integrazioaren eta zuzkidura-jarduketaren bidez.

Eraikinen eta hiri-espazioen birgaitzea erraztea.

Herritarren parte-hartzea HAPO berrian


HAPO berrirako bidea prozesu luzea da, eta herritarrek parte hartzeko hainbat une izan ditu, plana aberastuz joan direnak.

2013 eta 2015 urteen artean, hainbat saio egin ziren "lantaldeak" deiturikoekin, eta Getxorako alternatiba desberdinak gauzatu ziren. Alternatiba horiek, jatorri teknikoko beste batzuekin batera, HAPOren Aurrerakina osatu zuten.

2018an HAPO berriaren Aurrerakina jendaurrean azaldu zen, hainbat ekintza konbinatu zituen parte hartzeko prozesu batekin: lau informazio-saio Getxoko hainbat puntutan, bost parte hartzeko saio presentzial, haur eta gazteekin egindako saioak, talde politikoei egindako saio bat, 44 banakako bilera eskatu zutenekin, 150 laguneko ausazko laginketa bat, langintzako Aholku Batzordearekin egindako saio bat eta partaidetza digitala. Hala eta guztiz ere, 750 lagun baino gehiagok parte hartu zuten fase hartan. Aldi berean, hiru erakusketa publiko egin ziren (RKEN, Villamonteko gelan eta Andra Mari Kiroldegian), Getxo Berriko gehigarri bat, eta Aurrerakinaren informazio guztia HAPOren webgunean jarri zen, eta 1600 bisita baino gehiago izan zituen jendaurreko erakustaldiaren epean.


2019an herritarren parte-hartzeari ekin zitzaion berriro, oraingoan HAPO berria genero-ikuspegia barneratzeko, eta lan horrek Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso zuen. Lan horrekin hainbat alderdi barneratu ziren HAPOn, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna hobetzeko, lana eta familia uztartzeko eta haurren eta gazteen autonomia hobetzeko, bai eta mendekotasuna duten pertsonen eta adinekoen autonomia hobetzeko ere.

2022an, iraileko ezohiko bilkuran hasierako onespeneraren ondoren, HAPO berria **jendaurrean jarri zen berriro**; lau hitzaldi informatiborekin, erakusketekin (**RKEN eta Andra Mari eta Fadurako kiroldegietan**), eta **karpa informatiboekin udalerriko hainbat gune publikotan: Bidezabalen, Malakaten, Algortako Geltokia plazan eta Areetako Eskoletako plazan**. Guztira, 1041 parte-hartzaile zenbatu ziren: 456 hitzaldi informatiboetan, 115 herritarren karpetan, 247 ikastetxeetako saioetan, 215 banakako bileretan erredakzio taldearekin, eta 8 ezohiko bileretan (Salsiduko komunitateak).



2018

2018an HAPOren Aurrerakinaren Jendaurreko Erakustaldian parte hartzeko hainbat ekintza.



HAPO berria genero ikuspegia barneratzeko informazio eta parte hartzeko saioak, 2019an.

2019



2022

Hainbat hitzaldi informatibo, erakusketa eta herritarren karpak, 2022ko Hasierako Onespen Dokumentuaren Jendaurreko Erakustaldian.

Onartutako alegazioak

Guztira, 2.100 proposamen eta alegazio baino gehiago aurkeztu ziren, eta horietatik 588 osorik edo zati batean baietsi dira, 438 argitu dira eta 1.155 ezetsi dira. Horietatik, 676 baino ez dira bakarrak, 1.479 alegazio errepikatu baitira, 16 mota ezberdinetan multzokatuta.

Baietsi diren alegazioak beren proposamenen interes publikoagatik eta HAPO berria egituratzen duten zehaztapenekin bat datozelako baietsi dira. Bestalde, argitu diren alegazioek balio izan dute herritarrei HAPO berriaren interpretazio-irizpideen berri emateko. Azkenik, aintzat hartu ez diren alegazioak HAPOren zehaztapen eta gaitasunetatik kanpokoak direlako edo indarrean dagoen legediaren aurkakoak direlako ezetsi dira.

Onartu diren alegazioetatik:

- 169 alegaziok Zubilletako jardueratik Salsiduko Los Puentes kaleko etxebizitzaren blokeak ateratzea eskatu dute.
- 85 alegaziok Gobernu Taldeak Trinitarioko lurzoru urbanizatuan aurreikusitako jarduketa integratua kentzea eskatu dute, Aita Trinitarioek eta beste pertsona batzuek aurkeztutako alegazioak aintzat hartuta.
- 24 alegaziok 100m² baino gehiagoko etxebizitzak zatitzeko aukera eskatu dute.
- Gainerakoak, interes partikularrei buruzko alegazioak dira.

Dokumentuak, PPK aurkeztutako alegazioen % 50 aintzat hartzen ditu (110 aurkeztu zituen guztira), batez ere eraikuntza eta urbanizazio ordenantzei buruzkoak, aparkalekuei,

etxebizitzaren zatiketari eta baserrien kontserbazioari buruzkoak. EH-Bilduren 36 alegazioetatik 5 onartu dira, eta Elkarrekin Podemosen 53 alegazioetatik, 6. Gainerakoak ez dira aintzat hartu, lurralde-ereduan aldaketak eragiten dituztelako, nagusiki.

Ezetsitako alegazioen artean, Getxon etxebizitza gehiago ez eraikitzeke 370 alegazio daude eta 150 alegazio, HAPO gelditzeko eta Plana berriro idazten hasteko dira, besteak beste.

Hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozeduren 46/2020 Dekretuak adierazten duen bezala, behin-behineko onespenera dokumentuari osoko bilkuran oniritzia eman ondoren, aurkeztutako alegazio guztiak eta haiei dagozkien erantzunak herritar edo erakunde proposatzaile bakoitzari jakinaraziko zaizkie.